

"HEZKUNTZA ESKUBIDEA BERMATZEKO PROGRAMA: Eskolagabetzea eta eskola-absentismoa ezabatzea Bizkaiko lurraldean" DELAKOAN AURREIKUSITAKO JARRAIPEN BATZORDEAREN TXOSTENA

2012-2013 IKASTURTEA

**HEZKUNTZA SAILA (Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza)
FORU ALDUNDIA (Gizarte Ekintza Saila)
EUDEL**

AURKIBIDEA

| | Orrialdea |
|---|-----------|
| 1. SARRERA | 3 |
| 2. PROGRAMAREN HELBURUAK | 4 |
| 3. DATU-BILKETA | 5 |
| 3.1 Terminoen definizio operatiboa: absentismoa, eskolagabetzea, absentismo metatua eta absentismo zuzendua | 5 |
| 3.2 Datu-bilketarako ezarritako prozedura | 5 |
| 4. ABSENTISMOAREN ETA ESKOLAGABETZEAREN ARAZOAREN DIMENTSIOA BIZKAIKO LURRALDEAN | 6 |
| 4.1 Oinarrizko Hezkuntza (Lehen Hezkuntza eta DBH) | 6 |
| 4.2 Haur Hezkuntza | 12 |
| 4.3 Absentismoaren eta eskolagabetzearen banaketa ikuskapen-eremuen arabera | 13 |
| 4.4 Kaltetutako ikastetxeak | 13 |
| 5. ABSENTISMOA ETA ESKOLAGABETZEA HEZKUNTZA-IKERKETAREN ARGITAN | 14 |
| 6. PORTUGALETEKO UDALAREN ESPERIENTZIA | 16 |
| 7. ONDORIOAK-SINTESIA | 23 |
| 8. HOBETZEKO PROPOSAMENAK | 26 |
| 9. ESKER ONAK | 28 |
| 10. ERANSKINAK | |
| 10.1 – I. eranskina: Datuen bilakaera | 30 |
| 10.2 – II. eranskina: Bibliografia | 33 |

1. SARRERA

“*Hezkuntza eskubidea bermatzeko Programa: eskolagabetzea eta eskola-absentismoa eraztea Bizkaiko lurraldean*” egitasmoan aurreikusita dagoen Jarraipen Batzordeak iragan bederatzik ikasturteetan zehar txostenak egin zituen Programa horretan parte hartzen duten hiru Erakundeen jokabideari buruz; hona hemen erakundeok: Hezkuntza Saila (Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza), Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila) eta EUDEL (Euskal Udalen Elkarte). Txosten horien bitartez jakin ahal izan da absentismoaren eta eskolagabetzearen dimentsioa Bizkaiko Lurraldeko Oinarrizko Hezkuntzako ikasleei (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) dagokienez, baita Haur Hezkuntzako etapako bigarren zikloari (3-6 urte) dagokionez ere. Bestalde, parte hartzen duten pertsonen iritzia ere jaso da, faktore hori gakoia baita hobetzeko proposamenik egokienak ezartzeko xedez.

Jarraian aurkezten den txostenak –hamargarren urteari dagokio (2012-13 ikasturtea) Programa ezarri zenez geroztik– berriro ere jakinarazi nahi du absentismoaren eta eskolagabetzearen dimentsioa ez ezik bere bilakaera ere bai. Izan ere, aurreko ikasturteetan jasotako datuek erreferentzia gisa balio dute konparaketak ezarri ahal izateko. Konparaketa horien emaitza gisa esan daiteke ikasle absentista eta eskolatu gabeen kopuruak gora egin duela aurreko ikasturtearekin alderatuta (101 gehiago aurtengo ikasturtean). Datuak zehatzago aztertuz gero, ikus daiteke jokabide absentistek gora egin dutela Lehen Hezkuntzan ikastetxe publikoei dagokienean eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikastetxe itunduei dagokienean. Aldiz, ikastetxe publikoetako Bigarren Hezkuntzako absentismo-erregistroek behera egin dute, eta ia ez dago eskolagabetzerik Bizkaian. Beste alde batetik, behera egiten jarraitzen du arazo honen kasurik larrienen kopuruak, hau da, portaera absentistak ikasturte osoa irauten dueneko kasuenak.

Horrek guztiak indarra ematen digu benetan lanari gogotsu ekiteko arazo hori ezabatze aldera. Bestalde, pentsatzen dugu ikastetxera sarritan eta modu iraunkorrean ez joateak nabarmen oztokatzen duela ikasleen garapen pertsonala, soziala eta akademikoa, eta epe luzean horrek baztertzea eta gizartetik kanporatzea eragiten duela.

Gainera, aurreko ikasturteetan esaten genuenez, urteotan zehar bizitako esperientziak, jardunbide onen azterketak eta azterlan konparatuek agerian jartzen dute eskola absentismoa beste arazo batzuen “detektagailu” ona izan daitekeela, hala nola tratu txarra, berdin arteko erasoena, osasun arazoena... Horrek, bestalde, berretsi egiten du berehala jokatu beharra dagoela, arazoa aurkitu bezain pronto.

Ikasturte honetan Portugaleteko Udalak ere parte hartu du absentismoaren jarraipena eta kontrola egiteko lanetan.

Helburu horri ere erantzun nahi zioten Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Diputatuak eta EUDELEko Gizarte Gaien arduradunak, 2003ko apirilean “*Hezkuntza eskubidea bermatzeko Programa: eskolagabetzea eta eskola absentismoa erauztea Bizkaiko lurraldean*” egitasmoa aurkeztu zutenean, hiru Erakundeek euren gain hartuta.

Helburuen lorpena egiaztatze aldera eta parte hartzen duen Erakunde bakoitzari hobekuntzako jarraibideak eskaini ahal izateko, Programak berak Jarraipen Batzorde bat egotea aurreikusten du. 2012-2013 ikasturteari dagokion txosten honek Batzordeak bere gain hartu dituen eginkizunak betearaztea du helburu.

2. PROGRAMAREN HELBURUAK

Hona hemen programa hau abian jarrita lortu nahi diren helburuak:

- Derrigorrezko eskolatzeko aldiaren dauden adingabeen hezkuntza eskubidea bermatzea, eskolagabetzea eta eskola absentismoa saihestuz.
- Gizarte esparru behartsuetatik datozen familien jokabidea sustatzea hiru eta sei urte bitarteko adingabeak eskolatzeko.
- Familia horien eskariak lehenestea hiru urtetik beherako seme-alabak Haur Eskoletan sartzeko xede dutenean.
- Gai horren larritasunari buruz sentsibilizatzea parte hartzen duten profesionalak, gizartea oro har eta zeregin horretan zuzenean diharduten pertsonak bereziki.
- Zerikusia duten erakundeek (Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila; Udalak; Foru Aldundia eta Fiskaltza) koordinaturik lan egitea prebentzioan eta eskolagabetzearen eta eskola absentismoaren aurkako esku-hartzean.
- Eskolagabetzearen eta eskola absentismoaren egoera nahiz abian jartzen diren esku-hartzeak ebaluatzea.

Txosten honetako atalek erantzuna eman nahi diete formulatutako helburuei, baina bereziki azpimarratzen da arazoaren hedadura zehaztea; izan ere, zenbat eta hobeto ezagutu, orduan eta egoera hobean egongo gara esku-hartzeak eraginkorragoak izan daitezen eta, azken batean, arazoa konpontze aldera.

3. DATU-BILKETA

3.1. Terminoen definizio operatiboa: eskolagabetzea, eskola absentismoa, absentismo metatua eta absentismo zuzendua

Txosten honetan aurkezten diren datuak interpretatu ahal izateko ageri da eskolagabetze, eskola absentismo, absentismo metatu eta absentismo zuzendu terminoen definizio operatiboa:

- **Eskolagabetzea:** Derrigorrezko eskolatze adinean (6-16 urte) egonik Ikastetxe batean matrikulatu gabe dauden adingabeen egoera da. Adingabea kontzeptu horretan sartuta dago matrikulatuta egon arren justifikatu gabeko hutsegiteen %100 duenean.
- **Eskola absentismoa:** Eskola absentismotzat jotzen da Ikastetxera era jarraituan ez joatea justifika dezakeen batere ziorik gabe, familiak berak onartuta edo bultzatuta edo ikaslearen beraren gogoz, aurrenerabe eta nerabeen kasuan. Kontzeptu honen definizio operatiboan, absentismo tasa hilean justifikatu gabeko hutsegiteen portzentaje gisa hartzen da. Txosten honetan absentismoa justifikatu gabeko hutsegiteen %20 edo gehiago gisa hartzen da. Absentismo kontzeptua, prebenitzeko eta desberdintasunak konpentsatzeko asmoz, Haur Hezkuntzako 2. zikloko adinetik aurrera aplikatuko da.
- **Absentismo metatua:** Tarteka jasotzen da ikasle absentisten artean ikasturtean metatutako absentismoaren portzentajea. Hona hemen tarteen esangura:
 - %25: Ikasturtean joan gabeko egunen %25era arte.
 - >%25-%50: Ikasturtean joan gabeko egunen %25 baino gehiagotik %50era arte.
 - >%50-%75: Ikasturtean joan gabeko egunen %50 baino gehiagotik %75era arte.
 - >%75: Ikasturtean joan gabeko egunen %75 baino gehiagotik %99ra arte (hutsegiteen %100 eskolagabetzearen baliokide da).
- **Absentismo zuzendua:** Absentista izan ondoren 2013ko apirila, maiatza eta ekainean gutxienez absentismoko erregistrorik ez izatera igaro diren ikasleen kopuru eta portzentajea jasotzen dira.

3.2. Datuak biltzeko jarraitu den prozedura

Programan ezarritako protokoloa bete da. Hau da, hileko bosgarren eguna baino lehenago Ikastetxeek Hezkuntza Ikuskaritzari eta dagokien Udalari erregistroko orriak bidali behar dizkiete, gorago azalduta dauden terminoen definizio operatiboaren arabera hileroko justifikatu gabeko hutsegiteen %20 edo gehiago izan dituzten ikasleen izenekin beteta. Gainera,

hiruhileko bakoitza amaitzean, Ikastetxe guztiek (hileko absentismoko erregistrorik izan zein ez) bere ikasle absentisten egoera aztertzen duen sintesi-fitxa bat bidali behar izan diote Hezkuntza Ikuskaritzari, eta horrela hobetu egin da datu bilketaren kontrola.

Erregistroak jaso ondoren, Ikastetxeko Ikuskariak aztertu egiten ditu eta horretarako sortutako aplikazio informatikoan sartzen dira. Aplikazio hori diseinatu izanari esker jakin izan dugu 2012-2013 ikasturtean absentismo eta/edo eskolagabetze erregistroren bat izan duten Ikastetxe eta ikasleen kopurua.

4. ABSENTISMOAREN ETA ESKOLAGABETZEAREN ARAZOAREN DIMENTSIOA BIZKAIKO LURRALDEAREN

4.1. OINARRIZKO IRAKASKUNTZA (LEHEN HEZKUNTZA ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA)

4.1.1. Portaera absentista duten edo eskolagabetuta dauden ikasleen kopuru osoa:

Absentismo kasuak eta eskolagabetzekoak batuta, 1.703 da kopurua orotara. Kopuru horrek Oinarrizko Irakaskuntzako ikasleen %1,7 egiten du.

Aurreko ikasturtearekin alderatuta, jokabide absentista duten edo eskolagabetze-egoeran diren ikasleen kopuruak gora egin du 101 kasutan. Gorakada hori absentismo-erregistroetan gertatu da. Eskolagabetzeari buruzko erregistroek behera egin dute, eta ia egon ere ez daude. Halaber, absentismo-kasuek Lehen Hezkuntzan egin dute gora ikastetxe publikoen kasuan, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, aldiz, itundutako ikastetxe pribatuetan.

1.703 absentismo eta eskolagabetze kasuetatik 980tan ikus daiteke ikasturtean zehar justifikatu gabeko absentziak ez direla %10era iristen. Mota horretako jokabidea “ohikoa ez den absentismo edo absentismo puntual” moduan har daiteke, kasu guztietan ere absentziak ikasturteko hilabete bakarrean gertatzen baitira (normalean irailean, abenduan edo ekainean).

Erregistroen maiztasunari buruzko zehaztasun hori kontuan hartuta, ikus daiteke absentismo eta eskolagabetze kasu guztien (1.703) eta % 10etik beherako absentismo kasuen (980) artean 723 kasuko ezberdintasuna dagoela, eta kopuru horrek arazoari buruzko informazio zehatzagoa ematen digu, horietatik baitira ikasturte osoan zehar portaera absentista mantentzen duten kasuak, txosten honen 10. orrialdean jasotzen den legez.


Oro har, behera egin dute ikastetxe publikoetako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta ikastetxe pribatu itunduetako Lehen Hezkuntzako absentismo-erregistroek eta baita ikasle eskolagabetuen kopuruak ere.

Absentismo erregistroen gorakadaren azalpenen artean, kontuan hartu beharko litzateke zerbitzu batzuek eta besteek egiten duten kontrol eta jarraipen hobia. Alde horretatik,

ikasturtearen zati handi batean geratzen ez diren erregistroetan gertatu da gorakada. Hala ere, kezkarria da gorakada hori Lehen Hezkuntzan ematea.

Sexuaren arabera banatuz gero, absentismo eta eskolagabetze arazoak dauzkaten ikasleen datuak honako hauek dira: 725 neska (%42,6) eta 978 mutil (%57,4).

Absentismoa eta eskolagabetzearen banaketa sexuaren arabera




4.1.2. Portaera absentista daukaten ikasleen kopurua

Guztira 1.695 ikaslek izan dute portaera absentista. Titulartasunaren eta dauden hezkuntza zikloaren arabera, honela banatzen dira:

| I. PUBLIKOAK | | | | | | I. PRIVATU ITUNDUAK | | | | | |
|--------------|-------------|-----|----------|-------------|-----|---------------------|-------------|-----|----------|-------------|-----|
| LEHEN H. | | | DBH | | | LEHEN H. | | | DBH | | |
| Ikasleak | Absentistak | % | Ikasleak | Absentistak | % | Ikasleak | Absentistak | % | Ikasleak | Absentistak | % |
| 30.492 | 837 | 2,7 | 16.984 | 523 | 3,1 | 32.281 | 113 | 0,1 | 20.478 | 222 | 1,1 |

Aurreko ikasturteetan bezalaxe, DBHn portaera absentista duten ikasleen portzentajea Lehen Hezkuntzakoena baino nabarmen handiagoa da, baina lehen ere aipatu dugun bezala, Lehen Hezkuntzan apurka-apurka ematen ari den gorakadak argi uzten du arazoa ekiditeko bitartekoak ezarri behar ditugula. Halaber, Ikastetxe publikoei dagozkien portzentajeak askoz handiagoak dira oraindik ere Ikastetxe pribatu itunduetakoak baino, eta arrazoiei buruz azalpena ematen da txosten honen 25. orrialdean.

Absentismoaren banaketa sexuaren arabera




4.1.3. Ikasle eskolagabetuak

Zortzi ikasle daude eskolagabetuta (iazko ikasturtean baino 25 gutxiago), eta honela banatzen dira:

| I. PUBLIKOAK | | | | | | I. PRIVATU ITUNDUAK | | | | | |
|--------------|--------------|------|----------|--------------|------|---------------------|--------------|---|----------|--------------|------|
| LEHEN H. | | | DBH | | | LEHEN H. | | | DBH | | |
| Ikasleak | Eskolaga be. | % | Ikasleak | Eskolaga be. | % | Ikasleak | Eskolagab e. | % | Ikasleak | Eskolagab e. | % |
| 30.492 | 3 | 0,01 | 16.984 | 2 | 0,01 | 32.281 | 0 | 0 | 20.478 | 3 | 0,01 |

Koadrootako datuek argi uzten dute egoera hau gutxiengoa dela hezkuntza-etapa bietan mota bateko zein besteko ikastetxeetan. Txosten honen ikuspeirik baikorrena ia-ia eskolagabetze-erregistrorik ez goteak ematen du.

Eskolagabetzearen banaketa sexuaren arabera



4.1.4. Portaera absentista duten edo eskolagabetuta dauden ikasleen kopurua

| LEHEN H. | | | DBH | | |
|----------|-------------------------|-----|----------|-------------------------|---|
| Ikasleak | Absent. eta eskolagabe. | % | Ikasleak | Absent. eta eskolagabe. | % |
| 62.773 | 953 | 1,5 | 37.462 | 750 | 2 |

Hezkuntza-etapen artean ezberdintasunak daude oraindik, baina Lehen Hezkuntzako absentismo-erregistroek gora egin duten bitartean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoek behera egin dute, lehen ere adierazi dugun bezalaxe.

4.1.5. Absentismo metatua. Hutsegiteen portzentajea ikasturtean zehar

4.1.5.1. Ikastetxe publikoetako ikasle absentistak

| LEHEN H. | | | | | | | | |
|-------------|------|------|----------|------|----------|-----|------|-----|
| GUZTIR A | %25 | | >%25-%50 | | >%50-%75 | | >%75 | |
| | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % |
| 837 | 723 | 86,4 | 89 | 10,6 | 16 | 1,9 | 9+3 | 1,1 |

Aurreko taulan ikus daitekeenez, Lehen Hezkuntzako ikasle absentisten portzentajerik handiena (%86,4) Ikastetxe publikoetan %25erainoko tartean kokatzen da.

>%75 tarteko absentisten kopuruari (9) eskolagabetuak gehituz gero, (3), egoera bi horietako portzentajea –arazo honen agerpenik larrienak– %1,4 izango litzateke.

| DBH | | | | | | | | |
|-------------|------|------|----------|------|----------|-----|------|-----|
| GUZTIR A | %25 | | >%25-%50 | | >%50-%75 | | >%75 | |
| | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % |
| 523 | 393 | 75,1 | 90 | 17,2 | 27 | 5,2 | 13+2 | 2,5 |

DBHn, absentismoaren portzentajerik handiena ere (%75,1) %25erainoko tartean biltzen den arren, Lehen Hezkuntzan ageri dena baino txikiagoa da. Dena dela, absentismorik larrieneko tartetean DBHn Lehen Hezkuntzako etapan ematen dena baino portzentaje handiagoak erregistratzen dira. >%75eko tartean %2,5 da.

Lehenago bezala, azken tarteko ikasle absentisten kopuruari (13) eskolagabetuak gehituz gero, (2), bi egoera horietako portzentajea %2,8ra igoko litzateke.

4.1.5.2. Ikasle absentistak Ikastetxe Pribatu Itunduetan

| LEHEN H. | | | | | | | | |
|-------------|------|------|----------|------|----------|-----|------|-----|
| GUZTIR A | %25 | | >%25-%50 | | >%50-%75 | | >%75 | |
| | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % |
| 113 | 88 | 77,9 | 14 | 12,4 | 8 | 7,1 | 3+0 | 2,6 |

Ikastetxe Pribatu Itunduetan ere ikasleen metaketa bera gertatzen da lehen tartean, hau da, ikasturtean hutsegiteen %25 gainditzen ez dutenena; %77,91ra heltzen da hemen.


Kasu honetan >%75 tarteko ikasle absentistek ezin zaie ikasle eskolagabetuen kopurua gehitu, ez baitago halakorik.

| DBH | | | | | | | | |
|-------------|------|------|----------|------|----------|-----|------|-----|
| GUZTIR A | %25 | | >%25-%50 | | >%50-%75 | | >%75 | |
| | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % |
| 222 | 150 | 67,6 | 46 | 20,7 | 17 | 7,6 | 9+3 | 4,1 |

Ikastetxe pribatu itunduetako DBHn ere absentismoaren kontzentrazio txikiagoa ageri da %25eko mailan, hemen %67,6ra heltzen dena.

Azken tartean ikasle eskolagabetuak (3) eransteian, bien baturaren portzentajea %5,3 izango litzateke.

Absentismoaren %25 tartean metaketa sexuaren arabera




4.1.6. Absentismo zuzendua

| IKASTETXE PUBLIKOAK | | | | IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK | | | |
|-----------------------------------|------|------------------------------|------|-----------------------------------|------|------------------------------|------|
| LEHEN H. Absentisten kop.: 837 | | DBH Absentisten kop.: 523 | | LEHEN H. Absentisten kop.: 113 | | DBH Absentisten kop.: 222 | |
| Zuz. kop. | % | Zuz. kop. | % | Zuz. kop. | % | Zuz. kop. | % |
| 491 | 58,7 | 248 | 47,4 | 67 | 59,3 | 114 | 51,3 |

Aurreko taulako datuek absentista izateari uzten dioten edo gutxienez ikasturteko azken hiruhilekoan ez diren ikasle absentisten kopuru absolutu eta portzentajeen berri ematen digute. Hauexek izan daitezke absentismo horren zuzenketaren zioak: Erakundeek arazo hori gainditzeko egindako esku-hartzeak, edota portaera absentista eragin bide duen egoeraren araberrako inguruabarra desagertzea; izan ere, absentismoaren definizio operatiboaren barruan sartzen dira hainbat zioengatik egunen %20an justifikatu gabe huts egiten dutenak, hilabete batean bakarrik gertatu arren.

Datu hauen bidez ikus dezakegu arazoaren dimentsiorik larriena, hots, esku-hartze guztiak gorabehera ikasturtean zehar portaera absentistari eusten diotenena. Kopuru hori ateratze aldera, aurreko taulako datuak kentzen zaizkie txosten honetako 4.1.2 atalean daudenei, eta Lehen Hezkuntzako 392 ikaslara heltzen da (%0,6) eta DBHko 383 ikaslara (%1).

Absentismo zuzendua sexuaren arabera



4.1.7. Udal Gizarte Zerbitzuetara, Foru Aldundira eta Fiskaltzara bideratutako espedienteen kopurua

| | Bideratutako espedienteen kop. | % (1) | % (2) |
|-------------------------|--------------------------------|-------|-------|
| Udal Gizarte Zerbitzuak | 1.136 (3) | 49,1 | 0,9 |
| Foru Aldundia | 40 | 1,7 | 0,03 |
| Fiskaltza | 167 | 9,8 | 0,2 |

(1) Absentismo eta/edo eskolagabetze kasu guztien gaineko %. Fiskaltzaren kasuan portzentajea derrigorrezko irakaskuntzaren egoeraren gainean bakarrik egiten da.

(2) Derrigorrezko irakaskuntzako eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloko ikasle guztien gaineko %. Fiskaltzaren kasuan portzentajea derrigorrezko irakaskuntzaren egoeraren gainean bakarrik egiten da.

(3) Ikastetxeek erregistro orrietan emandako informazioa.


Kasu guztietan, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak eskola absentismoari buruz bidalitako jakinarazpena jaso ondoren, Fiskaltzak honela jarduten du:

- Argiketa egiteko eskatzea Ertzaintzari, ondorio horretarako egindako protokolo baten arabera.
- Haur eta nerabe absentisten familiei zitazioa ematea.
- Eskolatuta dauden ikastetxeari justifikatu gabeko hutsegiteen hileko erregistroa bidaltzeko eskatzea, jarraipena egiteko.

Arazoak bere horretan irauten duenean, hiruhileko jarraipen hori derrigorrezko eskolatzea amaitu arte mantentzen da, eta hala gertatuz gero, gurasoen aurka salaketa egiteari ekin behar zaio, familiaren abandonua dagoela baloratzen den kasuetan.

Bidalitako kasuetatik fiskaltzak zortzi artxibatu ditu.

Zerbitzu ezberdinetara bideratutako ikasle kopurua sexuaren arabera




4.2. HAUR HEZKUNTZA

| IKASTETXE PUBLIKOAK | | | IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK | | |
|---------------------|-------------|-----|----------------------------|-------------|-----|
| Ikasleak | Absentistak | % | Ikasleak | Absentistak | % |
| 16.063 | 575 | 3,6 | 16.095 | 35 | 0,2 |

Haur Hezkuntzako 2. zikloari dagozkion datuak eskaintzen dira, derrigorrezko maila izan ez arren, hasiera-hasieratik egoera horiek identifikatzea garrantzitsua dela uste delako eskolatzeari sustatzeko, gizarte alderdian ahulak diren herriguneeen kasuetan batez ere. Hezkuntza-etapa honetan ere ikusten da absentisten kopurua apurka-apurka gora egiten ari dela ikastetxe publikoetan.

Haur Hezkuntzan absentismoaren banaketa sexuaren arabera



4.3. ABSENTISMOAREN ETA ESKOLAGABETZEAREN BANAKETA IKUSKAPEN-EREMUEN ARABERA

| Guztira | Eremuak | | | |
|---------------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|
| | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 132.393 (1) | 25.502 (%19,3) | 31.408 (%23,7) | 43.308 (%32,7) | 32.175 (%24,3) |
| 2.313 (2) | 93 (%4) | 90 (%3,9) | 1.385 (%59,9) | 745 (%32,2) |
| Absentismo indizea | (% 0,4) | (% 0,3) | (% 3,2) | (% 2,3) |

- (1) Guztizko horretan Bizkaiko lurraldeko Oinarrizko Irakaskuntzako (Lehen Hezkuntza eta DBH) eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloko ikasle guztiak zenbatzen dira. Guztizko hori lau ikuskapen-eremutan banatzen da taulak adierazten duen bezalaxe: 1. eremua Durangaldea, Lea-Artibai eta Busturialdeari dagokie. 2. eremua Uribe eskualdeari. 3. eremua, Bilbo eta Nerbioi Goienari, eta 4. eremua, aldiz, Ezkerraldea, Meatzaldea eta Enkarterri.
- (2) Bizkaiko Oinarrizko Irakaskuntzan (Lehen Hezkuntza eta DBH) eta Haur Hezkuntzan portaera absentista eta eskolagabetua duten ikasleen guztirako kopurua da.

Ikus daitekeenez, banaketa hori ez da berdintsua eremu guztietan. Aitzitik, batez ere 3. eta 4. eremuetan biltzen da.

4.4. IKASTETXE KALTETUEN KOPURUA

| IKASTETXE PUBLIKOAK | | | IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK | | |
|---------------------|-----------|-----|----------------------------|-----------|-------|
| GUZTIRA | Kaltetuak | % | GUZTIRA | Kaltetuak | % |
| 260 | 156 | %60 | 142 | 57 | %40,1 |

Portaera absentista duten eta/edo eskolagabetuta dauden 6 ikasle edo gehiago dituzten ikastetxeak

| IKASTETXE PUBLIKOAK | | | IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK | | |
|---------------------|-----------|------|----------------------------|-----------|------|
| GUZTIRA | Kaltetuak | % | GUZTIRA | Kaltetuak | % |
| 260 | 64 | 24,6 | 142 | 15 | 10,6 |

Bigarren taula honetako kopuru eta portzentajeek eskola absentismoko arazoaren kaltea duten Ikastetxeen irudi errealistagoa eskaintzen dutelakoan gaude; izan ere, lehenengo taulan islatzen dira erregistroren bat izan duten Ikastetxe guztiak, ikasle bati dagokion erregistro bakar bat izanagatik ere.

5. ABSENTISMOA ETA ESKOLAGABETZEA HEZKUNTZA-IKERKETAREN ARGITAN

Arazo honen dimentsioa, txikia izanik hezkuntza sistemaren ikuspuntutik, ez da hala norbanakoaren ikuspuntutik, eskola porrota eragiten duen egoera hori baita pertsona horien geroko bazterketa sozialaren arrazoietakoa bat. Arrazoi horregatik, txosten honetan, aurrekoetan bezala, J. Delorsek (1996) zuzentzen zuen XXI. menderako hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzordeak UNESCOri egindako Txostenean ageri dena azpimarratzen dugu:

“Herri askok, batez ere herri garatuetan, gaur egun hezkuntza politiketarako oso harigarria den fenomenoak jasaten dute: eskolatze-aldia luzatzean paradoxa da gizartearen abulena diren edo eskola-porrota jasaten duten gazteen egoera hobetu ez, baizik eta larriagotzea. Munduko hezkuntza arloko gasturik handienak dituzten herrietan ere, eskolako porrotak eta bertan behera uzteak ikasle askori eragiten diete. Gazteen kategoria biren arteko zatiketa sortzen da, are zatiketa larriagoa, lan arloan irauten duela kontuan hartuta. (...) Bazterkeria sortzen duen aldetik, eskolako porrota kasu askotan indarkeria molde batzuen edo norbanakoen galbideen sorburua da. Gizartearen ehuna urratzen duten prozesu horien ondorioz, eskolari gizarte bazterkeriaren eragile izatea leporatzen zaio eta aldi berean eskolari integratzearako edo berrintegratzearako funtsezko erakunde gisa dei egiten zaio. Hezkuntza politikei planteatzen zaizkion arazoak bereziki zailak dira; eskolako porrotaren aurkako borroka, beraz, gizarte-agindua izan behar du” (61. or.).

Ikerketa ezberdinek arazo hori jorratzen dute, horien arabera eskolagabetearen ondorioak larriagoak baitira orain enplegu osoa zegoen garaian baino. M. Esterle Hedibelen “Frantziako absentismoaren eta eskolagabetearen prebentzioa eta tratamendua: esperientziak eta jardunbide berriak” artikuluan (2005) baieztatzen denez, “enplegu bat betetzeko eskatzen den trebakuntza maila gaur egun handiagoa da, eta eskola-sistema titulurik gabe eta/edo 16 urte bete baino lehen uzten duten ikasleek gizarte eta lanbide arloko iguripenak askoz txikiagoak dira”.

“Eskola absentismoa hezkuntzaren kalitaterako erronka gisa” izeneko hezkuntza-ikerketako lanak –J. Rué, M. Amela eta M. Buscarons-ek egina (2003)– ondorioztatzen du ikerketa horrek errealitate konplexu baten aurrean jarri dituela. Errealitate horrek ikasle zehatz batzuekiko mugak agertu ditu, baina horrez gain, beste bide batzuk ere erakutsi ditu irakaskuntzan jarduteko eta derrigorrezko hezkuntzako erabiltzaile guztiei kalitate bermeak eskaintzeko. Horrek pentsamolde aldaketa dakar: eskolatze berria hartu behar dugu kontuan gehiago, azaleratzen diren egoera pertsonal berezi edo espezifikoei –ikasle absentistek, adibidez– laguntza ematea baino. Ikasle horiek, eurentzat izan arren bere eginkizuna aintzat hartu ezin duten edo, are txarrago, zuzenean gaitzesten duten erakunde baten aurkako hainbat erronka mota agertzen duten sektorea dira.

M^a Teresa González Gonzálezek “Absentismoa eta eskola bertan behera uztea: hezkuntzako bazterkeriaren egoera berezia” artikuluan (2006), absentismoaren arazoari heltzen zaio, eta ikaslearen gaineko foku bakarretik (famili ezaugarriak, bizi den komunitatearenak, bereizgarri pertsonalak, portaera akademikoak...) eskola-antolakuntzaren eta hezkuntza politiken fokura igarotzen da, eta zera dio ondorio gisa:

- Absentismoa eta bertan behera uztea saihesteko jarduketara oro eraginkorra izateko, ikastetxeko kide guztiak ados egon behar dira honako honetan: bertaratzea hobetzeko, aldaketa esanguratsuak egin behar dira ikasketako giroen kalitatea hobetze aldera.

- Garatzen diren estrategia eta planen abiapuntua honako hau izan behar da: ikastetxeak azterketa egin behar du, eta ulertu egin behar du zergatik ez doazen ikasleak eskolara, zergatik deskonektatzen diren curriculumetik, zergatik ez zaizkion lotzen lan akademikoari, ezta gizarteari ere... Hortaz, ezinbestekoa da jakitea zein neurritan eragiten duten egiturek beraiek, eskaintzen diren curriculumek eta gelako irakaskuntzek, inguruarekiko harremanek eta ikastetxearen funtzionamendua egituratzen duten usteez bertaratze eta bertan behera uzte arazoetan.

Era berean, absentismo eta eskola porrotari buruzko azalpen guztiak ikasleriari edo familiari egotzen diegunean, Miguel Ángel Santos Guerrak (2012) esaten du: *“es imposible que aparezcan las preguntas sobre la naturaleza y estructuración de los contenidos, sobre la metodología utilizada por los profesionales, sobre la evaluación realizada, sobre el clima del aula, sobre el nivel de exigencia, sobre el sentido de la escuela... Y si no existen preguntas, es difícil que se busquen respuestas. Cuando el diagnóstico está mal hecho, las soluciones son inevitablemente defectuosas”*.

Europar Batasuneko INCLUD-ED Ikerketako Esparru Programen barruan, A. Flecha, R. García, A. Gómez eta A. Torreren (2009) “Eskola arrakastatsuetan parte hartzea: ikerketa komunikatiboa” artikuluan agerienez, eskolaren eta familiaren arteko harremanean oinarritzen diren ikerketek frogatu egin dute familien eta komunitatearen partaidetzak areagotu egiten duela gutxiengo kulturei dagozkien edo minusbalotasuna daukaten ikasleen errendimendua (Caspe, López eta Wolos, 2007; Dearing, Kreider, Simkins eta Weiss, 2006; Driessen, Smith eta Slegers, 2005; Hess, Molina eta Kozleski, 2006; Merry, 2005). Nazioarteko komunitate zientifikoak jada ezagutzen dituen ekarpen horiek, hezkuntzaren arrakastarekin lotzen diren parte-hartze motak zeintzuk diren jakiteko sakontzea eskatzen zuten. Includ-ed proiektuaren emaitzek, komunitateak ikastetxeetan parte hartzeko molde batzuen sailkapena ekarri zuten: informatiboa, aholku-emailea, erabakitzailea, ebaluatzailea eta hezitzailea. Argi eta garbi ikusi da familien eta komunitatearen parte-hartzeko jokabide jakin batzuek lotura daukatela maila sozioekonomiko txikiko eta gutxiengo taldeetako ikasleen arrakastarekin: familien prestakuntza, komunitatearen esku-hartzea erabakia hartzeko prozesuetan eta parte-hartzea curriculumaren garapenean eta ebaluazioan.

2009ko azaroko “Mundu aldakor baterako funtsezko gaitasunak” izeneko agiriak (Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Batzorde zientifiko eta sozial europarrari eta Eskualdeen batzordeari) haxe dio: *“Metodo berritzaileak, adibidez ikasketa-programa pertsonalizatuak eta esperimentazioan oinarritutako ikasketa, bereziki erabilgarriak izan daitezke eskolako esperientzia negatiboak edo porrotez beteak jasan dituztenentzat”*.

Carlos Ferreirós fiskalak derrigorrezko irakaskuntzari eta Fiskaltzak egin ahal duen esku-hartzeari buruz egindako azterlan luze eta zorrotzean azpimarratu egiten da herri garatuetako haurren babeserako xedapenen eraldaketaren ardatza, hain zuzen ere haurrak eta nerabeak *eskubidedun* subjektu gisa kontuan hartzea. Bertatik sortzen da babeseko espedienteak eraentzen dituen funtsezko printzipioa, “adingabearen interesa”. Printzipio horrek gidatu behar du botere publikoek adingabeen eskubidea –kasu honetan hezkuntzarako eskubidea– jardunbide desegokien aurka babesteko egin beharreko esku-hartzea, jardunbide horiek familiek ontzat eman arren.

Maribel García García irakasleak eskola-absentismoaren kausa zahar eta berriak identifikatu ditu. Kausa zaharrek egiturazko gizarte-ezberdintasunetan dute jatorria (ezberdintasun ekonomiko, sozial eta kulturalak), eta baita hondarreko zenbait berezitasun kulturalen biziraupenean ere. Horiek guztiak Lehen Hezkuntzan ikusten dira argi eta garbi. Kausa berriek, aldiz, eskolatze-garaia luzatu izanari loturiko absentismo-egoerei buruzkoak dira. Ikasten eman beharreko epea luzatu izanaren ondorioz 14 eta 16 urte bitarteko zenbait ikaslek eskolan jarraitu behar dute euren interesak eta igurikimenak bestelakoak izan arren, eta horrenbestez, eskolak ikasle-profil berri horren ezaugarrietara egokitu behar ditu bere metodoak eta antolamendu pedagogikoa.

José Luis Martínez Pérezen doktorego-tesiak jasotzen duenez, eskola-absentismoa eragiten duten faktoreek hezkuntza-sistemaren funtzionamendu konkretuarekin izaten dute zerikusia sarritan. Eskola-absentismo kasu gehienetan funtsezko papera jokatu ohi du ikastetxeak berak. Ikastetxeak eskaintzen dituen aukerek hezkuntza-aukerak irekitzen edo ixten dituzten heinean, aurrebaldintzek eragin handiagoa edo txikiagoa izango dute portaera absentistak eragiten dituzten faktoreengan. Horrenbestez, eskola-absentismoa eskolaz kanpoko faktore batek eragiten duen kasuetan ere eskolak paper garrantzitsua izan dezake ikasleari eskain diezazkiokeen hezkuntza-aukerari eta eskola-integrazioari dagokienean.

Azkenik, Europar Batasunaren 2020. urterako helburuetako bat da eskola uztearen portzentajeak %10 baino gutxiago izan beharra, eta belaunaldirik gazteenaren %40k gutxienez goi mailako ikasketa osoak eduki beharra. Kontuan hartzen badugu “eskola uztea” terminoarekin Derrigorrezko Irakaskuntza bukatu ostean beste ikasketarik egiten ez duten gazteen portzentajea adierazten dela, arazoa askoz larriagoa da absentisten kasuan; izan ere, horiek, arazoak iraunez gero, ez lukete Oinarrizko Irakaskuntza ere amaituko.

6. PORTUGALETEKO UDALAREN ESPERIENTZIA: BERTAKO MAHAIA ARRISKUAN DAUDEN HAURREI LAGUNTZEKO. Lankidetzako esperientzia hezkuntza- eta gizarte-zerbitzuen artean Portugaleten

Portugaleteko udal-zerbitzu sozialen eta hezkuntzako artean lankidetzak batzuk gertatu dira laurogeiko hamarkadaz geroztik, eta horiek berekin eraman dituzte oso une emankorrak harreman profesionalean, ahaleginak areagotze aldera udalerriko haurrek dituzten zailtasunak gainditzeko xedez.

Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko Programan, Bizkai Lurraldean deseskolatzea eta eskola-absentismoa eraztekoan, udalak 2003. urteaz geroztik, Bizkaiko beste guztiekin batera, parte hartu izanak ematen digu aukera lankidetzak “ordenatzeko”, lan esparruan behintzat absentismoari buruz.

Horren harira, programa hori egoteak, adierazpen gisa erakundeen arteko nahian – Eusko Jaurlaritzako Ordezkaritza, Bizkaiko Foru Aldundiaren Haurrentzako Arloa eta Udal-Zerbitzu Sozialak EUDELEn bidez – suposatzen du aurrerapen garrantzitsu bat hiru osagai azpimarragarriekin:

- Absentismoaren fenomenoaren argitzean du eragin, esku-hartze behar, zerbitzuen erantzukizun, esku-hartzeko aukeraren eskuduntza eta fenomenoaren Bizkaian eten gabe segitu beharri dagokienez.
- Eztabaida eta adostasuna zehatzen ditu hausnarrean jardun ostean arte hartzen duten erakundeetako profesionalen artean, eginkizun eta jokabide zehatzak zerbitzu bakoitzak martxan jarri behar dituenak antzemandako absentismo egoeren aurrean eta prebentzio, koordinazio, segimendu eta ebaluazioko ekintzetarako.
- Batera egiten den lanaren protokoloaren barruan agertzen da informazioko sostengu bat zerbitzu guztiei helarazteko, eta horri “Gizarte- eta hezkuntza-Txostena” deritzo; izan ere, balio behar du hizkuntza komun bat erabiltzeko, erregistrokoa egindako jardueretan.

Aukera hau aprobetxatuz, baita aurreko esperientziak ere, Portugaleteko Udal-zerbitzu Sozialak proposatzen diete udalerriko ikastetxe guztiei **Bertako Mahaia Arriskuan dauden Haurrei laguntzeko** eratzea, lankidetzako ekintza guztiak oro har koordinatu nahian haurrek izan dezaketen edozein zailtasun zirkunstantzia elkarrekin batera artatze aldera.

Zehatzago, hona hemen Mahairako proposatzen diren **helburuak**:

- Lankidetzaren nabarmen hobetzea ikastetxeetako profesionalen eta gizarte-zerbitzuen artean.
- Goizik antzemandako kasuen prozesuetan aurrera egitea familietan laguntza behar dutenetan eta zerbitzuen arteko harremanetan.
- Absentismoko programaren garapen orokorra balioestea Portugaleta udalerrian.
- Elkarrekin batera gauzatutako esku-hartzeak kasuz kasu ebaluatzea absentismoa eta haurren beste zailtasun batzuk antzematen direnean.
- Zailtasunak dituzten haurren norbanako segimendua egitea udalerrian.

2005ko urtarrilean izan zen bertako Mahaiko lehen bilera, eta Gizarte-Ongizate arloko ordezkari zinegotzia izan zuten buru; bilkura hartan bildu ziren hainbat ordezkari: Berritzegune, Hezkuntza Ikuskaritza, udalerriko Ikastetxeak eta udal-zerbitzu sozialak, bai oinarritzko zerbitzuak (koordinatzaile eta Gizarte-Langile batekin), bai familia eta haurrentzako esku-hartzeko beste udal-zerbitzu batzuk (gizarte- eta hezkuntza-esku-hartzeko taldea, laguntza psikosozialekoa, orientazio telematiko familiarrekoa, eta Portugaleteko aukerako eskolatzeko Segi Zaitetz programakoa).

Lehen bilera honetan eratu zen Arriskuan dauden Portugaleteko Haurrei laguntzeko bertako Mahaia, absentismoko programaren proposamenen eta udalerriko premien arabera, eta honako neurri hauek hartu ziren:

- Jokabideko protokoloaren berri eman zieten deseskolatzea eta absentismoa erazteko programan dauden erakundeei. Segimenduko Batzordearen berri eman zuten, “Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko Programa: deseskolatzea eta eskola-absentismoa eraztea Bizkai Lurraldean” aurreikusita zegoenez.
- Ikastetxe bakoitzari eman zioten esleitutako Gizarte-Langilearen berri erreferentzia gisa harremanetan jarduteko udal-zerbitzu sozialarekin.
- Absentismoko programaren protokoloa egokitu zioten Portugaleteko egoerari:
 - A- Egoera absentista antzeman ondoren, aztertu egin zen hutsegiteen zioa, familiekin harremanetan jarritz, eta ahaleginak egin ziren konpontze aldera. Lortu ezean, Gizarte- eta Hezkuntza-Txostenari ekin zioten, eta arazo egoera antzematen duena hasten da jardueran (zehaztu zen **soilik** dela beharrezkoa atalak betetzea informazioa dagoenean), eta Gizarte-Zerbitzuetara edo Ikastetxera igortzen da, egokia den bezala.
 - B- Jarraian beste parteak betetzen du Txostena (G.Z. edo Ikastetxea, nor ekin dion jarduerari).
 - C- Ikastetxeko profesionalen eta G.Z.en artean egin zen bilera Lan-Plana ezartzeko xedez elkarrekin batera.
 - D- Azkenik esku hartu zuten, eta hori egin dezakete Ikastetxeak, Gizarte-Langileak, gizarte- eta hezkuntza-esku-hartzeko taldeak, laguntza psikosozialeko Zerbitzuak edo denek batera.
 - E- Bertako Mahaiko bileran ebaluatu zen egoeraren eboluzioa edo ebazpena.
- Bertako Mahaia adostu zuen urtean bitan biltzea, maiatz eta azaoan.

Urtero egin diren bi bileretan eta bakoitzean, orain arte, gertatu den elkarren ezagutzak daukan garrantziaz gain, Mahaian heldu diete kontu askori: lankidetzaren prozedura, harremana, protokoloa tresna ugariaren erabilgarritasuna eta, batez ere, berrikusi egin da familien “kasu” bakoitzaren egoera, ehun eta berrogeita hamar baino gehiago direlarik zailtasunekin, eta partekatu egin dira horiek.

Urteotan zehar gertatutako eztabaiden ondorioz, Bertako Mahaiko aktetan zailtasun batzuk hautematen dira lankidetzaren funtzionamenduan eta, batik bat, aukera asko hobetzeko xedez. 2012an Bertako Mahaia proposatu zuen erabiltzen zen lankidetzaren prozedura berriro ikustea, eta aldatzea beharrezkoa izanez gero, eta hartarako parte hartzeko prozesu bati ekin zioten, kontsultatu eta erabakitzeke sartu beharreko aldatetegi buruz.

Lehen fasean, 2013ko martxoan, Gizarte-Langile baten esku utzi zen Bertako Mahaia parte hartzen duten ikastetxe eta zerbitzu bakoitzeko ordezkariekin elkarrizketa bat egiteko xedez. Elkarrizketen gidoia aztertu beharreko lau alderdik osatzen dute, eta emaitzen laburpentxo bat dakargu:

1. Erakundeen erlazioa: ikastetxeak eta gizarte-zerbitzuak

Bertako Mahaiari dagokionez parte hartu zuten lagunek balioetsi dituzten alderdien artetik informazioa dago ongien, Saileko baliabide eta programetatik emandakoa. Lerro horretan apustu egiten dute euren informazio zehaztua edukitzeagatik; izan ere, kasu batzuetan nolabaiteko nahastea dute Udaleko G.Z.en baliabideen eta Aldundikoen artean.

Elkarrizketatutako hamabi ikastetxeetatik, bostek egiten dute Bertako Mahaiaren oso balioespen positibo bat haurtzarorako. Batez ere nabarmentzen dira tratatzen diren edukien baliotasuna. Euren ikastetxeak ez diren adingabeen egoera islatzeak laguntzen die udalerriko ikastetxe guztien ikuspen orokor bat edukitzen. Horrek uzten du, aldi berean, egoerak normalizatzen eta argi egiaztatzen haur eta nerabeekin sortzen diren arazoak ez direla erakunde berezi bateko bakarrak.

Gainerako zazpi ikastetxeek adierazten dute ezegokia dela informazioa –oso zehatza batzuentzat, orokorregia beste batzuentzat-, kasuetatik eskaintzen dela isilpekotzat jotzeagatik, ez izatea gune egokia ikasle bakoitzaren egoera planteatzeko, ez izatea interesagarria euren ikastetxeari ez dagozkion adingabeen egoera jakitea, ikastetxeko bideratutako adingabeen kopurua ematea, zeren horrek islatu baitezake asmo oker bat, ez oso erabakitzailea, gatazkatsua, e. a.

Erabilgarriagoa dela deritzote gun ehorri adingabeen kasuak planteatzeko, eurekin ez baitute funtzionatu egindako esku-hartzeek, gainerako ikastetxeekin kontrastatzeko eta elkarrekin batera lan egiteko esku-hartzeko aukerak.

Egokitasuna alde batera utzita adingabe bakoitzaren prozesuaz informatzea edo ez egin izan den bezalaxe, zortzi ikastetxek deritzote ikasturtearen hasieran informazioko bilera bat egin daitekeela ikastetxe bakoitzarekin gizarte-langile baten aldetik, baina proposatzen duten foroa aldatu egiten da erakunde bakoitzaren barne-antolakuntzaren arabera. Ahalbidetu egingo luke hurbiltze pertsonalatuago bat G.Z.en aldetik ikastetxeekin batera; Sailaren informazio zehatzagoa edukitzea hobeki ezagutzeko bertako organigrama; eratzen duen profesionalen taldea (gizarte-langileak, psikologoak, hezleak...), funtzioak, rolak, ardurak... papera beti argi ez edukitzearen neurrian –batez ere gizarte-langileena- eta nola ahokatu euren funtzioak ikastetxearekin, edo noren mende dagoen adingabe bat edo familia bideratzea baliabide zehatz batera. Halaber, utzi egingo lieke sartu berri diren irakasleei bideratzeko protokoloa ezagutzen.

2. Aldez aurretiko urratsa bideratzera gizarte- eta hezkuntza-txostenaren bidez.

Atal honek jasotzen du ikastetxeetako balioespena zailtasun/erraztasunari dagokionez lehen harreman honetarako gizarte-langilearekin ikastetxe bakoitzari buruz kontsultaren bat egin behar dutenean; gaur egungo prozeduraren balioespena teknikari arduradunari kasua

esleitzeko, eta eraginkortasunaren balioespina koordinazioan bideratzeko fasea baino lehenago.

Hamabi ikastetxeetatik seik agertzen dute zail egiten zaiela gizarte-langilearekin harremanetan jartzea lehen une batean kontsultaren bat egiteko, edo duda baterako, beti harremanetan egonda. Badirudi kasu batzuetan jasotzen dituztela langile administratiboen aldetik asertzio-erantzun gutxi, eta seinalatzen dute informaziorik eza gizarte-langileen ordutegiari buruz eurekin mintzatu ahal izateko. Horrek behartzen ditu etengabe deika ibiltzera, denbora era desegokian galduz. Balioesten dute ezen, deiaren mezua utzi ondoren, denbora aski luzea ematen dela harik eta gizarte-langilea eurekin harremanetan jarri arte.

Galdera haietariko beste bat da ea ikastetxeek ezagutzen duten esleitua daukaten erreferentziako profesionala, eta, nolahi ere, nori deitu behar dioten lehen une horretan adingabe bat bideratu baino lehen.

Hamabi ikastetxeetatik bederatzik argi dute zein den erreferentziako profesionala, baina onartzen dute ez dutela beti ezagutzen era pertsonalean, eta gertaera hori egokiagoa izango zela. Gainerako parte-hartzaileek adierazten dute ez dutela argi zein profesionalengana jo behar duten lehen une batean. Nahaste edo ezjakintasun horregatik harremanetan jarri ohi dira ongien ezagutzen duten gizarte-langilearekin elkarrekin batera daramatzaten kasuen arabera.

Balioesten dute xumeagoa izango zela kasuak ikastetxeka esleituak egotea eta ez adingabeen etxebizitzako zonaka. Horrela errazagoa izango zen erreferentziako profesional bakar bat edukitzea. Horrek baztertu egingo luke koordinazioa bizkor edo atseginagoa delako asmoa kasua berekin daraman gizarte-langilearen mende egonez gero.

3. Bideratzea gizarte- eta hezkuntza-txostenaren bidez:

Bloke honek iritzia jasotzen du bideratzeko prozesuaren beraren balioespinari buruz, eta erantzun denboraz ikastetxeek gizarte-zerbitzuetara gizarte- eta hezkuntza-txostena bidaltzen dutenez geroztik.

Jasotako datuek seinalatzen dute ezen bideratzeko prozesuaren eraginkortasunaren balioespina dela, atal hori balioetsi nahi izan ez zuen ikastetxe baten kasuan izan ezik, atsegina era partzialean hamaika ikastetxeen hasierako erantzuna baiezkoa izan den neurrian, baina jarraian daude alderdi batzuk hobetu behar luketenak, bestean beste:

- Txostena bidali ostean ez diete beti jakinarazten nor den kasuaren arduradun gizarte-langilea. Batzuetan ez dute erantzunik jaso igorritako txostenari buruz.
- Inpresioa dute txostena bidali ostean kasua “pistatik galtzen dutela”.
- Falta sentitzen dute txostenean esku-hartzeko prozesua nola doan jakinarazten ez dietelako.
- Uste dute parteek eta txostenak elkar ezkutatzen dutela, eta horrek lana bikoiztu eta esku-hartzea dilatatu baino ez duela egiten. Hortaz, eurek deritzote nahikoa izan litekeela hileko absentismoaren parte bat bidaltzea esku-hartzeari ekiteko.

- Atal honetan sortutako galdera guztien artean da txostenean iraultzen duten informazioari dagokionez. Behin eta berriro azpimarratzen da zuhurtasunez jokatu behar dela zenbait informazio islatuta ez uzteko unean “sentikorregi”tzat jotzeagatik idatziz uzteko.

4. Koordinazioa kasua bideratu ostean:

Inkestan parte hartu duten ikastetxe guztiek koordinazio handiago baten falta sentitzen dute gizarte-zerbitzuek gizarte- eta hezkuntza-txostena jaso eta familia eta adingabeekin euren balioespen/esku-hartzeko prozesuari ekin ondoren .

Zalantzarik gehien sortu duten alderdietariko bat da nabaritzen duten desoreka dakarten informazioaren eta jasotzen dituzten datu urrien artean.

Bigarren fasean, 2013ko maiatzean, txostenaren emaitzak aztertuz iren gizarte-zerbitzuetako taldean, eta horrek ekarri zituen bere iritzi eta proposamenak funtzionamendua hobetze aldera.

Hirugarren fasean, informazio osoa eztabaidatu zen Bertako Mahaiko ezohiko bilera batean 2013ko ekainaren 19an, eta hantxe landu ziren azterketaren emaitzak, eta adostasun batera heldu zen protokoloan aplikatu beharreko aldatetei buruz 2013/14 ikasturteko lankidetzarako.

1. Erakundeen arteko harremanen esparruan:

- Erreferentziako Gizarte-Langilearen nortasuna sendotzea Ikastetxe bakoitzerako.
- Gizarte-zerbitzuak hobeto ezagutzea Ikastetxe bakoitzeko erreferentziako Gizarte-Langilea gonbidatuz klaustroko bilera batera ikasturte bakoitzaren hasieran.
- Mahaiko deialdiaren gai-zerrenda parte-hartzeko moduan lantzea, gai-zerrendako proposamena bidaliz, ekarpenak jasotzea eta deialdia behin betiko igortzea.

2. Aurretiko urratsei dagokienez gizarte- eta hezkuntza-txostena hastean:

- Kasuak Gizarte-Zerbitzuetan banatzeko era berrikustea. Nahiz eta arduraz balioetsi den haurtzaroko kasuak banatzeko aukera, ezohiko moduan, ikastetxe bakoitzeko erreferentziako gizarte-langilearen aldetik, eta ez zonaka, ulertzen da aldatetak ez dituela konpontzen kasu guztiak –dagoeneko artatuak dauden familiak, edo gizarte-zerbitzuetan hasten direnak- eta horrek suposatzen du antolakuntza nahaste garrantzitsu bat. Hala ere, adostu zen beste aukera batzuk aztertzen jarraitzea, ikastetxeetako harremanak gizarte-langile gutxirekin egitea ahalbidetzen dutenak.

- Adostutako txostenaren proposamena bidali izana ziurtatzea (2 puntua ikusi) lehen urrats gisa lankidetzako prozesuan hezkuntzako profesional eta gizarte-zerbitzuen artean.
- Posta elektronikoaren erabilera bultzatzea komunikazioak bienestar@portugalete.org helbidera gauzatu direla, eta dagokion gizarte-langilea dela hartzailea segurtatuz.

3. Baterako lanari dagokionez.

- Lankidetzaren errazte aldera, proposatzen da gizarte- eta hezkuntza-txostenaren lehen orrialdea bihurtzea bi sistemen bideratzeko orri.
- Hona hemen prozedura:
 - Haurrarekin dagoen zailtasuna jakinaraztea bideratzeko orriaren bitartez.
 - Erreferentziako gizarte-langileak familiari jakinaraztea; edo tutoreak bere lekuan.
 - Jasotako zerbitzuan dagoen informazioa berrikustea.
 - Lan-bilera profesionalen artean, gizarte- eta hezkuntza-txostenaren datuak osatuz, baterako “inpresio” bat lortzeko zailtasunen zioari buruz, eta baterako jokabideak lantzeko.
- Hitzartu egin zen baterako lan-talde bat eratzea, “gida” bat lantze aldera familiari beste zerbitzuaren lankidetzaren proposamena jakinarazteko moduari buruz hobeki artatzeko xedez.
- Agertu zen gizarte-zerbitzuen jarrera barerako elkarrizketa bat familiarekin gauzatzeko, hezkuntza-zerbitzuek hala eskatzen dutenean.

4. Artatzen diren kasuen segimenduari eta lankidetzako protokoloarekin zerikusia duten kontuetan:

- Ziurtatzea artatzen den familia bakoitzari dagokionez egingo direla bi lan-bilera gutxienez gizarte-langilearen eta tutorearen artean:
 - Lehena, kasua hastean, aurreko atalean aipatzen diren funtzioekin.
 - Bigarrena, ikasturtea bukatu baino lehenago, aurrerapenak balioesteko eta erregistroa egoki uzteko hurrengo ikasturtean kasua jasoko duten profesionalentzat.
- Mahaiko bileretan lantzen diren edukiak aldatzea, ikastetxe bakoitzeko informazioa orientatuz artatzeko bidean dauden kasuen –kasu ireki berriak, kasu itxiak, e. a.– datu estatistikoei, kasu bakoitzean sortutako gertakariak aztertuz.

7. ONDORIOAK-SINTESIA

- Ikastetxera sarri ez joateak neurri handi batean ikaslearen garapen pertsonal, sozial eta akademikoa eragozten du, eta horrela epe luzean gizarte bazterkeriako egoerak sortzen dira. Gainera, bederatzi urteotan jasotako datuek, jardunbide onen azterketak eta azterlan konparatuek agerian jarri dute eskola absentismoa beste arazo batzuen “detektagailu” on gisa dabilela: tratu txarra, berdinaren arteko erasoak, osasun arazoak..., besteak beste.
- Eskola-absentismoa eskola uztea ekartzen duen fenomeno interaktibo eta heterogeneoa da. Egoera hori faktore ezberdinek eragin dezakete: abiapuntu ezberdinak, eskola-ibilbide ezberdinak, kideen taldearen eragina, etorkizunari buruzko pertzepzioak, familien maila soziala, eskolaren inguruan norberak eta familiak dituen igurikimenak... Arrisku-egoeran dauden pertsonak ez dituzte beti portaera absentistak izaten, eta absentismoaren zio guztiak ere ezin dira gizarteari edo familiari loturiko baldintzatzaileen bidez azaldu.
- Derrigorrezko eskolatzea luzatzeak ikasleentako batzuek eskolatze hori nola bizi duten baldintzatzen du, eta Lehen Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara bitartean absentismo-egoerak gertatzea azaltzen du.
- Prozedura estatistiko bat erabili ez bada ere sexuaren arabera eskaintako datuetan diferentzia adierazgarriak dagoen ala ez baloratu ahal izateko, eskaintzen diren kopuru absolutuek zalantzan jartzen dute aurreko ikasturtean baieztatu genuena, hau da, arazoa aldagai horrekin lotuta ez dagoela.

Portugaleteko Udalak ekarritako esperientziari dagokionez, honako ondorio hauek jasotzen dira programa horretan parte hartzen duten profesionalen iritzia oinarri hartuz:

- Eskola-absentismoaren zioak aztertzea udalerrri batean, eta haur absentisten familien arreta eta segimendua egitea, premiazkoa delarik baterako “lan-gune” iraunkor bat Gizarte-Zerbitzuen eta Ikastetxeen artean. Portugaleten erabilgarri agertu da Bertako Mahai hori Arriskuan dauden Haurrei laguntzeko.
- Nahiz eta hasiera batean erantzuna eman nahi dien Programaren premiei hezkuntzarako eskubidea bermatzeko Bizkaian, oso era positiboan balioetsi da Mahaiko lanetan baterako lana sartzeari Portugaleteko haurrek agertu dezaketen edozein zailtasun artatzeko xedez.
- Argiro nabaritzen dira bi alderdi ebaluazioa eta eten gabeko hobekuntza eskatzen dituztenak:
 - Elkar ezagutzea gizarte-zerbitzuen eta irakasleen artean, nola egiten duten lan, eta zer baliabide daukaten haurrak euren ardurapean dituzten familien premiei laguntzeko.

- Goizik bideratzea nabaritu den edozein premia, gelan zein udal-bulegoan, martxan jartzeko baterako azterketa eta esku-hartze bat lehenbailehen eragiteko.

Arazo honek Bizkaian 2012-2013 ikasturtean izan duen dimentsioari buruz honako ondorio hauek eskaintzen dira:

- Portaera absentista eta eskolagabetua duten ikasleen guztizko kopurua 1.703 izan da (Oinarrizko Irakaskuntzako ikasleen %1,7). Kopuru horrek gorakada ekarri du (101 kasu) aurreko ikasturtearekin alderatuta.
- Ikastetxe publikoetan Lehen Hezkuntzako ikasleen %2,7k eta DBHko ikasleen %3,1ek portaera absentista izan du.
- Ikastetxe pribatu itunduetan portaera hori izan duten ikasleen portzentajea %0,1 izan da Lehen Hezkuntzan eta %1,1 DBHn.
- Ikasturtean Lehen Hezkuntzan metatutako portaera absentista aztertuz gero, portzentajerik handiena %25erainoko tartean kokatzen da. Hau da, ikasturtean Lehen Hezkuntzan ikastetxe publikoetako ikasleen %86,4k galdutako eskola-egunek eta ikastetxe pribatu itunduetan ikasleen %77,9k galdutakoek ez dute gainditzen bakoitzaren urteko eskola-aldiaren kopuru osoaren %25.
- DBHn, absentismoko portzentajerik handiena ere, %75,1 Ikastetxe publikoetan eta %67,6 Ikastetxe pribatu itunduetan, %25erainoko tartean biltzen den arren, apalagoa da Lehen Hezkuntzako datuen aldean. Datu positiboa da urterik urte behera egiten duela absentisten kopuruak eskola-egun galduen portzentajerik handienaren tartean (%75 baino gehiago); aurtengo ikasturtean %2,8ra arte egin du behera Ikastetxe publikoetan eta %5,3 Ikastetxe pribatu itunduetan, ikasle eskolagabetuen datuak erantsiz gero.
- “Absentismo zuzendu”ari dagokionez, hau da, apirila, maiatza eta ekainean gutxienez erregistrorik ez egoteari dagokionez, Ikastetxe publikoetan Lehen Hezkuntzako ikasle absentisten %58,7an gertatu da eta DBHko %47,4an; Ikastetxe pribatu itunduetan, aldiz, %59,3an Lehen Hezkuntzan eta %51,3an DBHn. Azken datuok arazoaren dimentsio zehatzago baten aurrean jartzen gaituzte. Hala, absentismorik larrienak – ikasturte osoan irauten duenak– Lehen Hezkuntzako 392 ikasleri eragiten die (%0,6) eta DBHko 383ri (%1). Guztira Oinarrizko Irakaskuntzako 775 ikasleri (%0,8).
- Ikasle eskolagabetuei dagokienez, ikastetxe publikoetan %0,01 izan da Lehen Hezkuntzan eta %0,01 DBHn ere. Ikastetxe pribatu itunduetan ez da eskolagabetzerik egon Lehen Hezkuntzan eta DBHn % 0,01ekoa izan da.
- Haur Hezkuntzan, ikastetxe publikoetako ikasleen %3,6k izan dute portaera absentista, eta %0,2ak ikastetxe pribatu itunduetan.
- Portaera absentista eta eskolagabetzea handiagoak dira Ikastetxe publikoetan (Lehen Hezkuntzan %2,7 eta DBHn %3,1) Ikastetxe pribatu itunduetan baino; azken horietan

Lehen Hezkuntzan %0,3 dute eta DBHn %1. Alde horrek erlazio estua dauka ekonomian, familian, gizartean edo kulturaren baztertuta egonik ikastetxe batzuetan edo besteetan eskolatzen den biztanleriaren portzentajearekin. Orokorrean gehiago dira sare publikoan, eta nolana ere desberdina bakoitza kokatuta dagoen zonaldearen arabera. Izan ere, ikasle absentistak ez dira banatzen era proportzionalen Lurralde osoan. Aitzitik, bi eremuk (Ikuskaritzako 3. eta 4. eremuek) biltzen dituzte ikasle horien %92,1, eta oso adierazgarria da 3. eremuari dagokion portzentaje handia (%59,9).

- Absentismo eta/edo eskolagabetze arazoak dituzten ikastetxeak ikastetxe publikoen %60 eta ikastetxe pribatu itunduen %40,1 izan dira. Baldin eta ikasle absentisten kopurua 6 edo gehiago delako irizpidea badarabilgu, ikastetxe kaltetuen portzentajea ikastetxe publikoen %24,6 eta ikastetxe pribatu itunduen %10,6 da. Datuok absentismoaren eta eskolagabetzearen mapa zehatza marrazten dute generik gune:
 - Bizkaian kaltetutako guneak, batik bat, lehenago esan den bezala, Ikuskaritzako 3. eta 4. eremuak dira. Zehatzago esanda, Bilboko auzo jakin batzuei (Otxarkoaga, Zazpi Kaleak, San Frantzisko, Zabala...) eta Basauri, Barakaldo, Portugalete, Santurtzi eta Sestao udalerritako zenbait auzori dagozkie.
- Badago irizpide are zorrotzago bat, ikastetxea kaltetutzat jotzea baldin eta ikasleen %20 edo gehiagok portaera absentista eta/edo eskolagabetua badu. Horrela ulertuz gero hamar Ikastetxe publiko leudeke egoera horretan.
- Detektatu diren eta era positiboan bideratu ez diren kasuen %49,1 Ikastetxeetatik Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuetara edo beste Udal zerbitzu batzuetara bideratu dira. %1,7 Foru Aldundiko Haurtzaroren Zerbitzu Espezializatueta bideratu dira eta %9,8 Fiskaltzara (Aldingabeen Fiskaltza).
- Azkenik, zera azaldu behar da aurtan ere: arazo honek eskola-populazioaren zati txiki bati eragiten dion arren, gauza batzuk ez ditugu ahaztu behar:
 1. Kaltetuak (kopuru absolututan 1.703) 6 eta 16 urte bitarteko ikasleak dira, eta euren derrigorrezko eskolatzea da gizarteak hezkuntzarako eskubidea bermatze aldera ezarritako mekanismoa. Mekanismo hori horrela, benetan, ez da gauzatzen.
 2. Prebentzioz eta era sintomatikoan ez jokatzeak, familien gainean esku hartu behar duten Botere Publikoen erantzukizuna bete ez izana adierazteaz gainera, etorkizunean gizarte bazterketa eragiten duten arrazoi egiaztatuetako bat ez ezabatzea dakar.

8. PROPOSAMENAK

Batzordeak kontuan hartu ditu jardunaldian jaso diren zuzendaritza taldeen eta udal zerbitzuetako teknikarien iritziak, gure ingurune hurbilean eta beste errealitate batzuetan aplikatzen diren irtenbideak nahiz prozesuari buruz berak egin duen balorazioa. Horrenbestez, beharrezkotzat jo da hobetzeko honako proposamen hauek aurkeztea, haietariko asko iragan ikasturteetako txostenetan daudela; izan ere, arazo honen adierazpenik larrienen murrizketan bilakaera positiboa egiaztatu arren, absentismoaren erregistro kopuruak gora egiten jarraitzen du.

- Ikastetxeei eskatzen zaie, lehenago bezalaxe, euren ahaleginari eustea, eta ahal izanez gero areagotzea ere, bertaratze kontrol zorrotza burutze aldera. Kontrol hori ez da jo behar jokabide iraingarri gisa, lehen urrats gisa baizik, balizko arrisku akademiko, pertsonal edo sozialeko egoera batean jokatzeko ikasle kaltetuentzat. Gainera, gogora ekarri behar da ikastetxeak erabaki behar dituela irizpideak hutsegiteak justifikatzeko edo ez justifikatzeko, eta horiek tutore guztiek aplikatu behar dituztela modu berean.
- Halaber, parte hartzen duten eragile guztiei (irakaskuntza taldeak, gizarte-taldeak eta zerbitzu espezializatuak) eskatzen zaie kasua detektatu eta/edo bideratu ostean berehalako eta koordinatutako esku-hartzea egin dezatela.
- Arazoaren dimentsioa kontuan hartuta (oso txikia kuantitatiboki Hezkuntza Sistemari dagokionez oro har, baina larria bete gabeko oinarritzko eskubidearen garrantziagatik), esku-hartze bereizi bati ekin beharko litzaioke. Esku-hartze horretan, alde batetik bereziki kaltetutako eskualde eta ikastetxeak sartuko lirateke, eta bestetik, kasu bakoitzaren azterketa. Nolanahi ere, lehenetsuna eman behar zaie adinik txikiak dituztenei, eta arreta berezia jarri behar da Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren lehenengo zikloan.
- Berehala jardungo da (lehen hiruhilekoan) Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan detektatzen diren kasuetan, are gehiago Haur Hezkuntzako 5 urteko mailan portaera absentistarik izan bada.
- Prestasunez esku hartuko da Lehen Hezkuntzako etapatik Derrigorrezko Bigarreneira iragatean, eta esku-hartzea eta jarraipena bermatuta egongo dira harik eta haur eta nerabeen eskola egoera normaldu arte.
- Parte hartzen duten profesional guztiek azaroaren 8ko 230/2011 Dekretuaren bidez onetsitako BALORA tresnaren eskakizunak aplikatu beharko dituzte. Zentzu horretan, "Hezkuntza eskubidea bermatzeko programa" aipatutako Dekretuan jasotako eskakizunei jarraiki aztertze konpromisoa hartzen du batzordeak. Datorren ikasturtean egiten den absentismoari buruzko jardunaldian aurkeztuko da.
- Aurten ere, Batzordeak berriro oso modu positiboan baloratu ditu eragile eta Erakunde batzuek eta besteek egindako ahaleginak, komunikazioa eta esku-hartze koordinatua hobetzeko programaren aplikazioko hamargarren ikasturte honetan. Ikastetxe guztiei absentismo eta eskolagabetzeko hiruhilekoko sintesia aurkeztea eskatu izanari esker hobetu egin da kontrola datuak jasotzeko orduan. Alabaina,

oraindik ere azpimarratu behar da epeak errespetatu behar direla programaren barruan dauden esku-hartzeetan.

- Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren eta Adingabeen Fiskaltzaren arteko topaketak egiten jarraitu beharko litzateke. Aurtengo topaketetan txosten honetako datuen berri emango da eta Fiskaltzara edo dagokion instantzia judizialera bideratutako kasu bakoitzaren banakako bilakaera batera aztertzen jarraituko da.
- Haurrak eta Nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legean ageri diren EAEko Administrazio publikoen jarduera-printzipioei erantzunez eta beren eskumenak erabilia eta, zehatzago, lege horren 5., 7. eta 41. artikuluetan azaltzen denari dagokionez, Hezkuntza Sailaren eta, absentismoko erarik larrienak zein auzotan gertatzen diren, auzo horiei dagozkien Udalen artean lankidetzako hitzarmenak sinatzea proposatzen da. Hitzarmen horiek, arazo hori gehien jasaten duten eskualde eta Ikastetxeetako gizarte- eta hezkuntza-dimentsioa batera lantzeko berariazko giza baliabideak izendatzeko oinarria izango lirateke.
- Batzorde honek onartu behar du Hezkuntza Sailak abian jarritako neurriak, bereziki “Esku-hartze globalerako proiektuak” eta DBHko neurri bereizgarriak, izan daitezkeela hezkuntza-etapa horretako absentismo-erregistroak murriztu izanaren azalpena. Horrexegatik azpimarratzen du Lurralde Ordezkaritzak, dagokion neurrian, zein Hezkuntza Saileko bestelako instantziek mota horretako neurriak aztertu behar dituztela ikasle gazteenentzako. Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan “Esku-hartze globalerako proiektuak” susta ditzatela, hain zuzen. Hala aurreikusten du Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, 81.4 artikuluan zera jasotzen baitu: “Hezkuntza-administrazioek gizarte-baldintzak direla-eta derrigorrezko hezkuntzaren helburuak lortzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen egoera konpentsatzeko beharrezkoak diren giza baliabideez eta baliabide materialez hornituko dituzte ikastetxe publikoak eta itunpeko ikastetxe pribatuak. Berdin jasotzen du Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legeak. artikulua xedatzen duenez, berdintasun printzipioa eta dauden diskriminazio egoerak kentzea eraginkor egite aldera, EAEko urteroko Aurrekontu Nagusietan jasoko dira konpentsazioko fondo batean sartu beharreko kredituak baliabideak hobeto banatu ahal izateko.
- Aurreko proposamena sendotu nahian eta Sarrerak bermatzeari eta gizarteratzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 79.3. artikuluan ezarrita dagoena aplikatze aldera, plan bereziak prestatzea proposatzen da auzo-, udalerrri-, eskualde- edo bestelako geografia-eremuetarako, baldin eta, bereziki degradatuta daudelako eta pobrezia- eta bazterkeria-tasa handiak dituztelako, epe laburrean edo ertainean ekintza integrala behar badute. Proposamen hori, txosten honetako 27. orrialdean azaltzen diren auzo eta udalerrietako batzuetarako zehazten da.
- M. Scriven-ek zera esaten zuen: “Hobetu ahal izateko ebaluatu beharra dago”. Hezkuntza- zein gizarte-esparruan, abian jarriko diren politika eta estrategiak ebaluatu egin beharko dira errealitate eta eraginkortasunari egokitu izana egiaztatze aldera. Hortaz, erakundeek eskola-absentismoa ezabatze aldera abian jarritako politika, estrategia eta esku-hartzeak ebaluatzea proposatzen da. Horren haritik,

biziki gomendatzen da truke, azterlan eta laguntzako talde bat eratzea. Talde horretan parte hartuko dute tutore, orientatzaile edo zuzendariek, dagokion eskualdeko ikuskatzaileak, Berritzeguneak horretarako izendatuko dituen arduradunek, ikastetxeotan esku hartzen duten udal zerbitzuetako langileek, Jarraipen Batzorde horretako ordezkari batek, UPV/EHUko ordezkari aditu batek eta ISEI/IVEIko pertsona batek, arazoak identifikatzeko eta konponbideak bilatzeko.

9. ESKER ONAK

Hobetu beharreko elementu asko aurkitzen diren arren –horiek txosten honetan jaso dira– eta eskola absentismoko arazoa guztiz konpondu ez den arren, Jarraipen Batzorde honek, Programa aplikatzeko hamar ikasturteotan, profesionalek eta Erakundeek programa gauzatzeko ahalegin handia egin dutela ikusi ahal izan du. Bereziki azpimarratzen da lan handia egin dela absentismoa eta eskolagabetzea detektatzen, jasotako informazioa tratatzen eta arazoa aztertzeke ekimenak abian jartzen, ekimen horien ardatza “haur eta nerabeen interes gorena” dela. Era berean, zerikusia duten Erakunde eta profesionalen koordinazioan egindako urrats garrantzitsuak azpimarratzen dira.

Hemendik bihoa gure esker ona.

Bilbon, 2013ko abenduaren 16an

JARRAIPEN BATZORDEA

Osabide Hezkuntzarako Partzuergoa:

- Manu Goitia

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila:

- Ana Alonso
- Inmaculada Cereceda
- Ángel Acebo

Bizkaiko Foru Aldundia.

- Alazne Madinabeitia
- Nuria Pajares

EUDEL

- Ainara Bergaretxe- Dorleta Goiburua
- Manuela Gonzalez- Elsa Sánchez
- Elvira Etxebarria- Iñaki Iglesias- Eugenia Salterain
- Javier Ruíz



ERANSKINAK

I. ERANSKINA

DATUEN BILAKAERA AZKEN URTEETAN

| IKASTUR TEAK | ABSENT. + ESKOLAG. OIN. HEZKUNTZA N | ABSENTISM OA HAUR HEZK. | IKAST. KALTETUAK > 6 kasu | | FISKALTZARA BIDERATUAK |
|-----------------|---|-------------------------------|---------------------------|-------------------|---------------------------|
| | | | PUBLIKOAK | PRIBATU ITUND. | |
| 2003-2004 | 1.074 (%1,2) | 201 (%0,76) | 38 (%15,1) | 6 (%4,4) | 8 (%0,63) |
| 2004-2005 | 1.133 (%1,3) | 197 (%0,72) | 39 (%15,5) | 5 (%3,6) | 28 (%2,5) |
| 2005-2006 | 1.135 (%1,3) | 257 (%0,91) | 41 (%16,3) | 5 (%3,6) | 29 (%2,5) |
| 2006-2007 | 1.106 (%1,2) | 239 (%0,82) | 44 (%17,5) | 9 (%6,6) | 30 (%2,6) |
| 2007-2008 | 1.405 (%1,5) | 300 (%0,99) | 50 (%19,8) | 14 (%10,2) | 41 (%2,9) |
| 2008-2009 | 1.319 (%1,4) | 330 (%1,06) | 54 (%21,1) | 14 (%9,9) | 52 (%3,9) |
| 2009-2010 | 1.475 (%1,5) | 328 (%1,04) | 52 (%20,3) | 10 (%7,1) | 59 (%4) |
| 2010-2011 | 1.484 (%1,5) | 445 (%1,4) | 50 (%19,5) | 11 (%7,8) | 65 (%4,4) |
| 2011-2012 | 1.602 (%1,6) | 501 (%1,6) | 52 (%20) | 11 (%7,7) | 141 (%9) |
| 2012-2013 | 1.703 (%1,7) | 610 (%1,9) | 64 (%24,6) | 15 (%10,6) | 167 (%9,8) |

Aurreko taulak argi eskaintzen digu datuen bilakaera jarraipen horretan jardun izan duten bederatzi ikasturteetan. Harrigarria iruditu arren, badirudi datuek okerrera egiten dutela absentismoaren jarraipena egiteko xedea hartu zenetik. Litekeena da horrela izatea kontrolerako tresnak apurka-apurka hobetu egin direlako, baina ezin dira ahaztu gorakadan eragina izan dezaketen bestelako aldagaiak ere. Horrenbestez, arazoaren jatorria hobeto aztertzen jarraitu behar dugu, hari aurre egiteko bitartekoak jarri ahal izateko.

Bestalde, ia ikastetxe guztiek bidaltzen dute hiruhileko sintesi-fitxa, beraz, arazo honen inguruko errealitatea hobeto ezagutzen dela bermatzen da.

ABSENTISMO ZUZENDUA

Absentismo zuzenduari dagokionez, esan behar da hurrengo taula horrek bilakaera osoa jasotzen duela 2004-2005 ikasturteaz geroztik; izan ere, datu hori ez zen jaso 2003-2004 ikasturtean.

| | IKASTETXE PUBLIKOAK | | IKASTETXE PRIVATU ITUNDUAK | |
|-----------|---------------------------------|----------------------------|---------------------------------|----------------------------|
| | LEHEN H. Absentismo zuzendua | DBH Absentismo zuzendua | LEHEN H. Absentismo zuzendua | DBH Absentismo zuzendua |
| 2004-2005 | %42 | %49 | %57 | %44 |
| 2005-2006 | %42,4 | %44 | %52,5 | %34,6 |
| 2006-2007 | %63,4 | %55,1 | %67,5 | %59,4 |
| 2007-2008 | %47,1 | %48 | %48,4 | %39 |
| 2008-2009 | %44,1 | %43,8 | %65,1 | %46 |
| 2009-2010 | %46,6 | %41,8 | %43 | %45,2 |
| 2010-2011 | %49,5 | %53,4 | %70,2 | %49,6 |
| 2011-2012 | %53,6 | %50,2 | %59,8 | %52,9 |
| 2012-2013 | %58,7 | %47,4 | %59,3 | %51,3 |

Taulan ikus daitekeenez, ikasturteon Lehen Hezkuntzan ikastetxe publikoetan zuzendu diren kasuen portzentajea aurrekoan baino handiagoa da.

AZKEN TARTEAN METATUTAKO ABSENTISMOA

Jarraian azken tartean metatutako absentismoaren bilakaera jasotzen da (Ikastetxera ikasturteko eskola-egunen %75ean baino gehiagoan joaten ez diren ikasleen portzentajea jasotzen du, eskolagabetuekin batera), informazio hau jaso den bederatzi ikasturteetan.

| | IKASTETXE PUBLIKOAK | | IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK | |
|-----------|---|--|---|--|
| | LEHEN H. %75 eta %100 bitarteko absentismoa | DBH %75 eta %100 bitarteko absentismoa | LEHEN H. %75 eta %100 bitarteko absentismoa | DBH %75 eta %100 bitarteko absentismoa |
| 2004-2005 | %6,5 | %17,1 | %6,8 | %24,6 |
| 2005-2006 | %6,6 | %19 | %15,6 | %15,5 |
| 2006-2007 | %4,9 | %10,5 | %1,3 | %5,9 |
| 2007-2008 | %2,9 | %9,5 | %3,2 | %14,2 |
| 2008-2009 | %7,4 | %12,6 | %4,5 | %11,7 |
| 2009-2010 | %2,7 | %10,3 | %3,1 | %12,8 |
| 2010-2011 | %2,6 | %9,1 | %2,3 | %15,9 |
| 2011-2012 | %1,6 | %4,6 | %1 | %5,7 |
| 2012-2013 | %1,4 | %2,8 | %2,6 | %5,3 |

Aurreko taulak jakinarazten du arazoaren dimentsiorik larriena (ia ikasturte osoan irauten duenean) nabarmen murriztu dela ikasturte honetan aurreko ikasturtearekin alderatuta. Hain zuzen, arazoaren zeinurik larrienek behera egin dute ikastetxe publikoetako Oinarrizko Hezkuntza osoan (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) eta ikastetxe pribatu itunduetako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

II. ERANSKINA

BIBLIOGRAFIA

CASPE, M., LÓPEZ, M. eta WOLOS, C. (2007). *Family involvement makes a difference. 2, winter 2006/2007*. Cambridge: Harvard Family Research Project, Harvard Graduate School of Education.

DEARING, E., KREIDER, H., SIMKINS, S., eta WEISS, H.B. (2006). Family involvement in school and low-income children's literacy performance: Longitudinal associations between and within families. *Journal of Educational Psychology, 98, 653-664*.

DELORS, J. (1996). *La educación encierra un tesoro*. Madrid. Santillana, Ediciones Unesco.

DRIESSEN, G., SMITH, F. eta SLEEGERS, P. (2005). Parental Involvement and Educational Achievement. *British Educational Research Journal, 31(4) 509-532*.

FERREIROS, C. E. (2011). *Defensa del derecho a la enseñanza obligatoria: el papel del ministerio fiscal*. Madrid. Fundación AEquitas.

FLECHA, A. eta beste. (2009). Participación en escuelas de éxito: una investigación comunicativa del proyecto Includ-ed. *Cultura y Educación, 21(2), 183-196*.

GARCÍA, M. (2009). "Absentismo y Abandono Escolar. Algunas claves para el desarrollo de intervenciones integradas en el marco de una escuela inclusiva y del territorio". Hemen: Bolívar, A (coord) Absentismo y Abandono escolar. Políticas y buenas prácticas. Monográfico Escuela.

GONZÁLEZ, M.T. (2006). Absentismo y abandono escolar: una situación singular de la exclusión educativa. *REICE. Revista Electrónica Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación, 4. bol., 1 zki*.

HEDIBEL, M.E. (2005). Prevención y tratamiento del absentismo y de la desescolarización en Francia: experiencias y nuevas formas de actuar. *REICE. Revista Electrónica Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación, 3. bol., 1 zki*.

HESS, R.S., MOLINA, A.M eta KOZLESKI, E.B. (2006). Until Somebody Hears Me: Parent Voice an Advocacy in Special Educational Decision Making. *British Journal of Special Education 33(3) 148-157*.

MARTINEZ, J. L. (2009). *El absentismo en la escolaridad obligatoria. Etiología del problema y caracterización socio-educativa del alumno absentista*. Doktorego-tesia. Universidad de Castilla-La Mancha.



MERRY, M. (2005). Social exclusion of muslim youth in flemish and french speaking Belgian schools. *Comparative Education Review*, 49(1), 1.

RÚE, D. AMELA, M. eta BUSCARONS, M. (2003). *El absentismo escolar como reto para la calidad educativa*. CIDE. Hezkuntza Ikerketa arloko Bigarren Saria. Bartzelona

EUROPAR BATASUNA. Batzordearen jakinarazpena. Europa 2020 “Hazkuntza adimentsu, jasangarri eta integratzaileko estrategia”. Brusela, 2010.